


ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2026ko urtarrilak 30 · 1383 zenbakia

ETORKIZUNA DUEN HEZKUNTZA



URRATEGI

INTERIORISMO
barne diseinua

dena
sukaldean
hasten da

www.urrategiinteriorismo.com • Agneta Arretxe 9 Eibar Aragoeta 27



OSASUN GIDA

DENTISTAK

0943972237 - 0943972237

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Ferrnán Calbetón 10-3 ezk. Eibar
943 70 72 37 | 688 42 28 08
amaia@esnaoladentalogia.com

arat.
ARAT KLINIKAK

ZURE
IRRIBARRE
ONENA

Torres Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 893
www.aratclinika.com

EIBAR - HORTZ KLINIKAK
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
616 7016

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibardclinicadental.com
www.eibardclinicadental.com

BISTA·EDER
Hortz Klinika - Clínica Dental

T: 943 70 00 82

Bista Eder n.º 19, bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

GASTESI Hortz-Klinika

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 95 02
Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implantak / Laser Teknologia

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnak: 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGO

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarri plaza, 7-1. nr. 943-702826

Odontologia
Biologikoa

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 578 48 57 52
albistegi@gmail.com

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

RS Hortz Klinika
Jose Usen Rodríguez
Morrero doktorea

LARRIALDIK
ERE LANTZEN DITUGU

CLINICA DENTAL Y
MEDICINA ESTETICA RS 603 48 90 18 / SAN JUAN, 7

FISIOTERAPEUTAK

ANE MENDIA
100 kolegiatu diru

- FISIOTERAPIA
- KINESIOTERAPIA
- FUNKZIOALAK TRATAMENDUA
- K-TERAPIA + DEPRESIOAK

ABUGASTIA, 20
Tfn: 943 53 66 42
ane_mendia@hotmail.com

masajeak eta
tratamenduak

FISIOTERAPIA IPURUA
EDURNE ETXEBERRIA

1088 kolegiatu diru.

I. Ojanguen, 2 678 746 617

Julian Etxebarria, 7 688717028

muina
FISIOTERAPIA ZENTRUA

Zoru Fisiokoa - Fisioterapia orokorra - Taldetxak

Dona Mireia Sainza

GINEKOLOGIA

Dra. Laura Martínez Dr. Alejandro Recas

GINECOLOGÍA
EIBAR

- Ginekologia
- Obstetria
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaelbar.com

Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubeen ikusgai



Jarraitu aktualitatea gure webgunean eta sare sozialetan



'Eibartarrak sarean' atalaren bigarren elkarrizketa egin dugu aste honetan. Oraingoan, Miryam Tejada da protagonista edo, sareetan hobeto ezagutzen dugun moduan, @adondequiera. Bidaia, aisialdirako planak... Eduki sortzaile eibartarrekin batera toki bereziak deskubritu ditzakegu!

www.etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOAK

943 20 67 76

AZALA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Haur-eskolak? Bai zera!

Abenduaren 13an gure herriko alkate jaunak horrenbeste atsegin dituen bideoetako bat igo zuen sare sozialetara. Bertan, urte amaierarako, Eibarko Udalak Partzuergoari bi lokal lagatzeko prest izango zirela saldu zigun.

Asteak pasa dira, eta otsailean sartzen ari garen honetan, ez daukagu bi lokal horien berririk, are gehiago, urtarrilaren 26an jakin genuen berak ere ez duela ezeren berririk. Zoritxarrez, haur-eskoletako plaza faltaren arazoa ez da berria Eibarko familientzat, eta asteak eta hilabeteak aurrera egin ahala, egoera larriagotu egiten da. Ondorioz, hainbat familiek Eibartik kanpo dauden haur-eskoletan matrikulatu behar izan dituzte haurrak: Mallabia, Ermua edo Elgoibarren besteak beste.

Denbora honetan guztian, Eibarko familiek hainbat eskaera, galdera eta proposamen egin dizkiogu Udal taldeari baina euren aldetik erantzun eta interes falta izugarria jaso dugu. Eibarko Hiriak "Ciudad amiga de la infancia" haurren eskubideak bermatzeko egiten ari den bide horretan zeri itxaroten ari da haurren beharrei erantzuteko? Badakigu 0-2 urteko haurrek ez dutela interes politikorik sustatzen eta agian horregatik... Haur-eskolak? Bai zera!

Ander Santos Olalde

Herria lagata dago

Nor da gure herriko lorategietako eta espazio berdeetako garbiketaren arduraduna? Lau lorategi txiki besterik ez ditugu, eta daudenak egoera lotsagarrian daude: plastikoak, latak eta era guztietako zaborra pilatuta.

Amañako bidegorriko mendixkan zaborra metatzen ari da aspaldidanik, eta Ego ibaiaren ertzak ez dira inoiz garbitzen. Kale-izkinetan gauza bera gertatzen da. Irudia penagarria da.

Herria lagata dago. Maitasunik gabe. Zaintzarik gabe. Ez da kontu estetiko hutsa: osasun, ingurumen eta errespetu kontua da. Herria zaintzea ere gobernatzea da.

LL.

Hortik esanak



Egunero haur, nerabe eta gazteekin lan egiten dugun irakasleok aspalditxo ohartuta gaude ideia atzerakoiak zabaltzen ikusten ditugula. Gutako asko arduratzen gaitu gure ikasgeletan ideia zein jokabide misogino, homofobo, arrazista eta, oro har, baztertzailen presentzia gero eta handiagoak. Ezinezkoa da beste aldera begiratzea. Ikusi nahi duena erraz konturatuko da, ordea, gorakada hori ez dela gazteen artean bakarrik gertatzen ari, gizarte osoan baizik. Egoera ilun honekin arduratuta gauden irakasleok gure buruari galdetu ohi diogu "zer gehiago egin genezake hau galarazteko?". Bada, hementxe daukagu aukera. Ez dezagun egoeraren erantzukizun osoa gazteen gain utzi, ezta faxismoaren gorakadari aurre egiteko egin beharra belaunaldi berriaren kargu bakarrik utzi ere. Poztekoa da gazteek konbentzimendu eta ardura osoz iniziatiba hartzea; erraztu diezaiegun bidea lehentasun eta urgentsia larriko lan honetan ari direnei, izan kalean izan ikastetxean, eta mobilizatu gaitezen geu ere beraiekin.

LEIRE MAKAZAGA, irakaslea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PLASTATEKO → Belarriondokoa. "Plastateko bat emonda bialdizu".

PLATER → Jateko erabiltzen den ontzia. PLATERA da, ez PLATERRA. "Baiña plaentxiatarrak, euren platerera ataratzen hasi ziranian ez eben billatzen saldia besterik"

PLATER-AZAL → Gaztelerazko 'plato llano'. "Horko jatetxeko jabia, zekena galanta: zopia plater-azalian ataratzen dau".



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 30
EGUNEZ Azkue (T. Etzebarria, 4)
ZAPATUA 31
EGUNEZ Castaño (J. Etzebarria, 7)
DOMEKA 1
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ASTELEHENA 2
EGUNEZ Azkue (T. Etzebarria, 4)
MARTITZENA 3
EGUNEZ Elortza (Juan Gisasola, 18)
EGUAZTENA 4
EGUNEZ Castaño (J. Etzebarria, 7)
EGUENA 5
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)
BARIXAKUA 6
GUNEZ Elortza (Juan Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Mariasun Etzebarria Apellaniz. 86 urte. 2026-I-21.
- Felix Kruzelaegi Plazaola. 95 urte. 2026-I-22.
- Maria del Puerto Veci Blanco. 81 urte. 2026-I-22.
- Justina Urkiola Etzebarria. 98 urte. 2026-I-24.
- Carmen Garcia Novoa. 77 urte. 2026-I-25.
- Miguel Rodriguez Alonso. 89 urte. 2026-I-26.



Patinete elektrikoen araudi berria indarrean sartu da Eibarren ere

S.H. Eibarko Udalak Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailu Elektrikoen (patinete elektrikoen) erabileran izango diren araudi-aldaketen berri eman du. Aldaketak 5/2025 Legean jasota daude, eta aste honetan sartu dira indarrean. Aldaketa nagusietako bat da patinete elektriko jakin batzuek erantzukizun zibileko aseguruia eduki beharko dutela derrigorrez. Gainera, Ibilgailu Pertsonal Arina izeneko kategoria sortu da, aseguruaren araudi espezifikoarekin. Patinete elektrikoek

baldintza berriak bete beharko dituzte: Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren erregistro publikoan izena ematea, zirkulazio-ziurtagiria edukitzea, eta identifikazio-plaka edo etiketa ikusgarria eramatea. Ziurtagiririk eta etiketarik ez duten patineteek 2027ko urtarrilaren 22ra arte soilik zirkulatu ahal izango dute.

Orain arteko debekuak ere indarrean daudela gogorarazi du Udalak. Informazio guztia Udalaren webgunean dago.

Tailer gastronomikoa antolatu ditu Gazte Safak otsailaren 6rako

S.H. Gastronomia tailerra egingo du Gazte Sefa elkarteak otsailaren 6an, barixakua, 17:30ean, Portaleko 3. solairuan. Izena emateko, gazte-safa@gmail.com helbidera idatzi edo 631330218 telefonora deitu behar da. Gazte Safaren helburua ez da dastaketa hutsera mugatzen, berbalagun espazioa sortzea nahi dutelako: “Aurreiritziak apurtzea, harremanak sustatzea, jendearekin berba egitea, gure herrian presentzia edukitzea eta abar nahi dugu. Protagonistak emakumeak izango dira, gure elkarte emakumeen elkarte delako”.



Euskal Kostaldeko Geoparkearen Tour Birtuala aurkeztu dute Fitur turismo azokan

S.H. Euskal Kostaldeko Geoparkearen ordezkariek aurtien ere Fitur Nazioarteko Turismo Azokan egon dira, eta Geoparkearen bira birtuala eta interaktiboa aurkeztu dute bertan, berrikuntza gisa. Azaldu dutenez, “proiektu honetan murgiltze-tresna digital bat sortu da, Deba, Mutriku eta Zumaiaiko gune esanguratsuenetan barrena ibiltzeko diseinatua. Tour Birtualak dibul-

gazio-edukiak dituen esperientzia interaktiboa eskaintzen du. Testu deskribatzaileak, audioak eta espazio birtualetarako estekak konbinatzen ditu, lurraldeko geologia, natura eta kultura ondareari buruzko informazioa zabaltzeko. Erabiltzaileek 360º-ko plano orokor baten bidez deskubritu ahal izango dute Geoparkea eta, horri esker, interes-gune konkrituak bisitatu”.



Zaldibar Argituk ekitaldia antolatu du hondamendiaren seigarren urteurrenean

S.H. Aurten ere, Eitzagako hondamendiaren urteurrenaren harira ekitaldia antolatu du Zaldibar Argitu herri plataformak, “hondamendia salatzeko, Alberto Sololuze eta Joaquín Beltrán gogoratzeko, eta erantzukizunak exijitzeko”. Herriarrei, “bereziki zaborteziaren inguruko herritarrei” dei egin diete otsailaren 8an, 12:30ean Eitzagara bertaratu daitezen.

Ekitaldia deitzearekin batera, ingurumenaren aurkako delitua aztertzen duen auziak oraindik instrukzio fasean jarraitzen duela, eta epaitegiak behin eta berriz atzeratzen duela salatu du Zaldibar Argituk: “Eitzagako hondamendia Euskal Herrian gertatu den handienetakoa da, ingurumenari eta ere-

mu jakin bateko biztanleen osasunari begira. Joaquín Beltrán eta Alberto Sololuzeren heriotza ekarri zuen desastreak. Goizean lanera irten ziren, sekula ez itzultzeko. Zer eta milaka tona hondakinen azpian geratzeko. Zuhurtziagabekeriak egindako giza hilketa bi egotzi zien enpresariei 2021ean epaitegiak. Bina homizidio. Hori ebazteko 21 hilabete behar izan zuten. Ingurumenaren aurkako delitua aztertzen duen auziak 72 hilabete daramatza instrukzio fasean. Sei hilabetero sei hilabeteko luzapena ezartzen du epaitegiak. Iaz esan genuena berresten dugu, hitzez hitz: baina, zenbat denbora behar dute instrukzioa amaitu eta ondorioak kalera-tzeko? Gu geu, gogaituta gaude”.



Aurretiazko Borondateen inguruko informazio-hitzaldiak egingo dituzte Eibarko Ospitalean otsailaren 3an eta 17an

S.H. Debabarreneko ESI-k ‘Aurretiazko Borondateen Dokumentua’ ezagutzeko eta formalizatzeko informazio-hitzaldiak antolatu ditu. Saioak otsailaren 3an eta 17an (martitzena) egingo dira, 13:00etatik 15:00etara Eibarko Ospitaleko -1 solairuan (areto nagusian). Hitzaldien helburua herritarrei aurretiazko borondateen dokumentuaren inguruko informazioa eskaintzea da, dokumentu horren bidez norberak bere osasunari eta tratamenduei buruzko erabakiak aldeztu aurretik jasota uzteko aukera izan dezan. Saioak gaztelaniaz izango dira. Antolatzaileek azaldu dutenez, dokumentua izapidetu ahal izateko bi saioetara joatea beharrezkoa da. Horregatik, interesa duten pertsonen bi datak agendan gordetzeko gomendioa egin diete.



ATE IREKINETAKO JARDUNALDIAK

Astelehena, otsailak 2, 19:00an / Martitzena, otsailak 3, 18:00an
943 89 92 21. isasikozuzendaritza@eibarbhi.eus





Sostoa 14 eremuan etxeak egiteko PSE-ren erabakiaren kontra azaldu da EH Bildu

S.H. EH Bilduk salatu du PSEk Sostoa 14 eremuan etxebizitzak eraikitzearen alde hartutako erabakia Eibarko gehiengo sozialaren eta udalaren azterlan teknikoen aurka doala. Koalizioaren arabera, proiektuak ez die erantzuten herriak dituen benetako beharrei. Bildutik onartu dute proiektuak legezko lizentzia duela, baina gogorarazi dute duela bost urte ere aurka agertu zirela, eta jarrera hori partekatu zutela PNVk eta Elkarrekin Podemosek. Haien ustez, Eibarren 1.200 etxebizitza baino gehiago hutsik egonda, ez da behar etxe berriak eraikitzea.

Koalizioak nabarmendu du azken urteotan eraikitako etxebizitzek ez dutela gazteen eta baliabide gutxien dituzten familien arazoa konpondu, sustapen horiek enpresa pribatuaren eskutik etorri direlako. Aldiz, gogorarazi dute Txonta eta Lapeyra bezalako etxebizitza sozialeko proiektuak EH Bildurekin adostu direla. Etxebizitzak berritzea eta berdegune gehiago sortzea lehentasunak dira Bildurentzat, eta horren adibidetzat jarri dute Hiri Antola-

menburako Plan Orokorren berrikuspenaren aurre-diagnostikoa, zeinak norabide hori gomendatzen duen. Azkenik, koalizioak kritikatu du 2020an hasitako Plan Orokorren berrikuspene geldirik egotea.

PSE-EEK gogor kritikatu du Bilduren planteamendua

PSEk, bere aldetik, gogor kritikatu du EH Bilduk Sostoa 14 eremurako aurkeztutako proposamena, seriotasun eta zorrotasun falta egotziz. Sozialisten esanetan, planteamendua “azalekoa eta inprobisatua” da, eta ez dago “benetako proiektu baten gainean eraikia”. Sozialisten ustez, “hiri-ingurunearen ezagutza eza eta kudeatzeko gaitasun falta” erakusten ditu.

EH Bilduren ustez, Sostoa tarreneko lursail hori da aukera bakarra da San Kristobal eta Ipurua bezalako dentsitate handiko eremu batean espazio publiko berria sortzeko eta, horregatik, PSEri eskatu dio lursailaren jabe den sustatzailearekin negoziazioak has ditzala, etxeak eraiki beharrean, plaza edo parke publiko bat egiteko.

Otsailaren 16ra arte eman daiteke izena “Gizontasuna korapilatzen” formazio saioetan parte hartzeko

S.H. Berdintasun Zerbitzua-Andretxearen ekimenez “Gizontasuna korapilatzen” izenburuko formazio-prozesua eskainiko dute otsailetik aurrera. Saioak hilean behin izango dira, Portalean, Hiruki Larroxaren eskutik, eta lehen saioa otsailaren 17an egingo da, 17:30etik 20:00etara. Izen-ematea otsailaren 16ra arte egin daiteke, zuzenean Andretxean, telefono bidez (943543938), edo mezua idatzita (andretxea@eibar.eus).



Palestinaren aldeko manifestazioa egingo da domekan, 12:00etan

S.H. Eibar Palestinarekin herri ekimenak deituta, Gazan genozidioa gelditzea eskatzeko manifestazioa egingo da otsailaren 1ean (domeka), 12:00etan Untzagatik hasita. *Gaza: un genocidio que no cesa. Genozidioa gelditu! Boikot Israel* goiburuari jarraituta, Gazako herritarren aurkako erasoak salatze asmoz antolatu dute mobilizazioa. Izan ere, joan den urriaren 10ean su-etena indarrean sartu zenetik, jada 484 dira Israelgo Armadaren erasoen ondorioz hildako palestinarrak.



Eguaztenean aurkeztu zuten programa Jon Iraolak eta Elena Ibañezek. EKHI BELAR

Informazio gehiago



Tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak eta erakusketak izango dira protagonista hilabete hauetan Andretxean. Ikastaroetan parte-hartzeko aurrematrikula egin beharko da otsailaren 2tik 24ra.

Ekainera arteko programa aurkeztu du Andretxeak

E.B. Hamaika ikastaro emango dituzte Andretxean. Lehenengoa, 'Sendabelarrekin gure gorputzak askatzen ikasi: Fitoginekologia' tailerra izango da. Martxoaren 2, 9, 16 eta 23an izango da, euskaraz.

'Ikasi pentsatzen eta pentsatzeari uzten' tailerra martxoaren 3, 10, 17 eta 24an, apirilaren 14, 21 eta 28an eta maiatzaren 5, 12 eta 19an izango da, gazteleraz.

'Nik ere konpontzen dut: etxeko konponketa' tailerrean oinarritzko tresnak erabiltzen ikasiko da, mar-

txoaren 4, 11, 18 eta 25an, apirilaren 8, 15, 22 eta 29an eta maiatzaren 6 eta 13an, gazteleraz.

'Menopausia erronkei aurre eginenez: zoru pelbikoko fisioterapia eta nutrizioaren indarra' tailerra martxoaren 5ean, 12an eta 26an egingo da, euskaraz.

'Flamenko feminista tailerra' apirilaren 9, 16, 23 eta 30ean egingo da, euskaraz.

'Boterea, ahizpatasuna eta pe-reoa' izeneko tailerra apirilaren 17an eta 24an, maiatzaren 8an, 22an

eta 29an eta ekainaren 5ean, gazteleraz.

'Irrintzi tailerra: Jatorrira itzuliz' Arrateko aterpetxean egingo da, maiatzaren 14an, euskaraz.

Ondorengoa, 'Dantza energetikoa: Mugimendua, gorputz konexioa eta adierazpen emozionala' ikastaroa izango da, maiatzaren 15ean eta 16an, gazteleraz.

Autodefentsa feministari dago-kionez, 'Boxeo feminista' (maiatzaren 23an, euskaraz) eta 'Autodefentsa feminista: bizitzaren sustraia eta ahots propioaren bila' (maiatzaren 18angazteleraz) tailerrak antolatu dira.

Azkenik, martxoaren 6, 13, 20 eta 27an, 'La jauría: Idazketa sortzailerle feministako tailerra' egingo da.



MATRIKULA IZEN EMATEA
Otsailaren 2tik 13ra

Tlf: 943 70 11 50 | Whatsapp: 614 90 41 12
www.aldatze.eus | aldatze@aldatze.org

db eta kitto!

DEBABARRENA KONTATZEKO GARAIA DA

Albisteak, ikus-entzunezko saioak eta agenda kulturala uztartuko dituen eskualdeko komunikazio-proiektua aurkeztu du ... eta kitto Euskara Elkartek!

Testua **NAIA AIZPURUA**



“Debabarrena... eta kitto!” eskualdera begira sortutako proiektu berria da, Eibarko astekariak urte luzez tokian tokiko informazioan egindako ibilbidea oinarri hartuta, baina begirada Debabarrenera zabalduz. Orain arteko esperientziatik abiatuta, proiektuak eskualde mailako ikuspegi zabalagoa hartu nahi du, herrien arteko loturak indartuz. Helburua argia da: Mallabia, Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku kontuan hartuko dituen komunikazio-proiektu bat garatzea, eskualdeko errealitateak modu hurbil, ulergarri eta propioan kontatzeko. Proiektua orokorrean online landuko da, ...eta kitto! Euskara Elkartaren webgunean atal propioa izanik eta sare sozialen bidez zabalkunde berezia emanez. Bestalde, astekarian ere orrialde bat eskainiko zaio.

Orain arte Eibarrera begira egindako lanari jarraipena emanez, ...eta kitto! Euskara Elkartek bere kabuz eskualdera zabaltzeko apustua egin du. Pauso honek tokikotik eskualdekora jauzi egitea dakar, baina betiko lan egiteko moduari eutsiz: gertutasunean, konfiantzan eta komunitatearekin loturan oinarrituta. Debabarrena modu askotan konta daitekeela sinetsita, proiektu honek kontakizun molde propioak garatzeko aukera eskaini nahi du, formatu, erritmo eta begirada berriekin. Hutsetik abiatzeak malgutasuna eta sormenerako tartea ematen du, eta hori abantaila

gisa ulertzen du proiektuak, probatzeko, ikasteko eta egokitze aukera ematen duelako.

Hemendik aurrera, hiru ardatz nagusitan banatuko da: alde batetik, albisteak, eskualdeko edozein herritarrentzat interesgarriak izango diren eguneroko aktualitatearekin, ikuspegi zabal eta partekatu batekin landuta; bestetik, saio bereziak, hamabostaldiko maiztasunez (hasiera batean behintzat), ikus-entzunezko formatuan eta eduki landuagoekin, elkarrizketak, erreportajeak edo datu-kazetaritza bezalako generoekin; eta, azkenik, agenda kulturala, ostegunero argitaratuko dena (ostegunetik igandera bitartean), eskualdeko ekimen guztien berri emateko asmoz, bereziki ekimen txikiago eta ikusgarritasun gutxiago duten horiei ahotsa emanez.

Proiektuak saretzea du oinarri: eskualdeko herri bakoitzean konfiantzazko harremanak eta aliantzak sortzea funtsezkoa izango da, informazioa modu gertuko eta zehatzean jasotzeko, eta herrietako errealitateak benetan ezagutzeko. Norabide horretan, komunitatearekin elkarlanean eraikitako kazetaritza baten aldeko apustua egiten du proiektuak. Tokiko kazetaritza sendo, hurbil eta arduratsu baten aldeko konpromisoari eutsiz, Debabarrena... eta kitto! eskualdetik sortu eta eskualdera zabalduko den proiektua da, etengabeko eraikuntzan egongo dena.

DEBABARRENEAN ZEHAR



AURREKO SAIOAN

Eskualdeko hizkera batzuk aztertu genituen: Eibar, Deba eta Mutrikukoak. Haien artean gertu egon arren, desberdinak dira.

HURRENGO SAIOAN

Debabarreneko bertsolari gazteen arteko saretzea indartzeko, joko bat proposatuko diegu.

ALBISTEAK

Euskal Kostaldeko Geoparkearen Tour Birtuala aurkeztu dute Fiturren.



Zaldibar Argitu plataformak ekitaldia antolatu du Eitzagan seigarren urteurrenean.

PLANA
bi.

Urt 30

ERAKUS.	PULSO, ANIMALIEN ARGAZKIAK	18:00	LOBIANO (ERMUA)
ERAKUS.	JOSETTE DACOSTA MARGOLARIA	19:00-20:00	OREKA GALERIA (SORALUZE)
ANTZER.	EL LENGUAJE DE LAS FLORES	20:30	ANTZOKIA (ERMUA)
JAIA.	SAN JUAN BOSKO EGUNA	16:30-07:00	KALEA/GAZTETXEA (ELGOIBAR)
KAFE TERT.	7. ARTEARI BURUZKO KAFE TERTULIA	18:30	LILA EMAKUME ETXEA (ELGOIBAR)
MUSIK.	JARKORE-PUNK GAUA STATE SANCTIONED...	21:30	GAZTETXEA (SORALUZE)

Urt 31

KIROL.	BOXEO BELADA	18:00	KIROLDEGIA (ERMUA)
MENDI IRTEERA	ERMUA-URKIOLA	08:00	AGURRE KIROLAK (ERMUA)
ANTZER.	CLOWN TAILERRA	10:00 13:00	IPURUA MERKATU PLAZA (EIBAR)
LANDAK.	ZUHAITZ LANDAKETA	10:00	OLATZ (MUTRIKU)
IPUIN KONTAK.	"GORA BIHOTZAK"	12:00	PORTALEA (EIBAR)
EGITAR.	INDEPENDENTZIA EGUNA. ERNAI	EGUN OSOA	HAINBAT (DEBA)
MUSIK.	SLIDE / SIRIUSLY	22:00	GAZTETXEA (MUTRIKU)
MUSIK.	SOFIA MACHIN	19:00	ANTXON GOZOTEGIA (EIBAR)

Ots 1

HITZALD.	SEXU HEZKUNTZA NOLA EGIN	10:00 13:30	IPURUA MERKATU PLAZA (EIBAR)
BIDEO.	IRABAZI ARTE-LEHEN ATALA	17:00	SAN AGUSTIN (MENDARO)

Eibar Lanbide Heziketako ikasleen elkargune izango da hurrengo eguenean

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Lanbide Heziketako ikasleek urteroko zita edukiko dute otsailaren 7an Ikasenpresa Azokarekin. 15. edizioa izango da aurtengoa eta hazten doan ekimena dela erakusten dute zifrek. Izan ere, aurten 61 ikastetxetako 3.000 ikasletik gora etorriko direla iragarri dute antolatzaileek eta 622 proiektu ekintzaile aurkeztuko dituzte (15 izango dira Debabarrenekoak). Gainera, beste gune bat zabalduko dute Errebal Plazan, eta guztira, beraz, lau izango dira.

Astlehenean egin zuten 15. Ikasenpresa Azoka aurkezteko prentsaurrekoa Eibarko udaletxean eta Inge Gorostiaga Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Eraldaketa Digitaleko eta Ikaskuntza Aurreratuetakozuzendariak, Ergiña Urzelai ITLENTeko Kultura Ekintzaileko Saileko arduradunak eta Jon Iraola Eibarko alkateak gain, Armeria Eskolako eta Uni Eibar-Ermuako ikasleek ere egon ziren bertan.

Gorostiagaren berbetan, “mota honetako azokak bereziak izaten dira, ikasleek proiektuak benetan egiten dituztelako eta, gainera, erakutsi”. Dena dela, aipatu zuen azokaren helburua ez dela ikasleek enpresa bat asmatzea bakarrik, “baitzik eta pertsona eta profesional moduan garatzea”. Gainera, bere ustez ikasleen talentua berebizikoa da Euskadirentzat: “Herriaren etorkizuna zarete”.

Jon Iraolak, Eibarko alkate den heinean, ongietorria egin zien aurkezpenera bertaratu zirenei eta otsailaren 7an etorriko direnei. “Ei-

barrentzat ohore handia da horrelako ekimena jasotzea. Eibar Lanbide Heziketaren sorterrria da eta gaur egun erreferentziakoak diren hiru formakuntza-zentro ditugu (Armeria Eskola Uni Eibar-Ermua eta Azitaingo OLHUI). Formakuntzaren arloa batzuetan ikusezina den arren, Lanbide Heziketa etorkizuneko apustua da”, bere hitzetan, eta, beraz, Ikasenpresa Azoka, elkargunea izateaz gain, “talentuarien erakusleihoa” ere badela azpimarratu zuen.

Lau gune

Aurtengoan, erakusleihoko horrek espazio berri bat izango du Errebal Plazan eta guztira lau gune egongo egongo dira:

Karpa nagusia, A karpa, udaletxe parean jarriko dute eta proiektu industrialak erakutsiko dituzte batik bat. “Prototipo handiak egongo dira ikusgai”, aurreratu du Urzelaiak.

B karpa Untzaga plazaren beste aldean jarriko dute, harmailen alboan, eta digitalizazio eta konektibitate eremua izango da.



Aurtengo Ikasapresa Azokan gune berri bat zabalduko dute Errebal Plazan. EKHIBELAR

Ckarpa Txanta Zelain egongo da eta merkataritza eta mugikortasun eremua izango da. “Hor ere prototipo handiak egongo dira ikusgai”, Urzelairen berbetan

Azkenik, eta nobedade bezala, Dkarpa egongo da aurten Errebal Plazan eta ongizate eremua deitu diote. “Dena dela, proiektu guztiek hartzen dituzte kontuan balioak:

ingurunea nola hobetu, pertsonen bizi-kalitatea hobetu...”.

Tipologia eta arlo ezberdinetako proiektuak aurkeztuko dituzte ikasleek, Lanbide Heziketan eskaintzen diren ikasketen aniztasunaren isla. Horrela, Urzelairen ustez, “gauza potente asko egongo dira, batzuk oso ikusgarriak, robotak kasu”.

3.000 ikasletik gora etorriko dira Ikasapresa Azokara 622 proiektu ekintzaile aurkeztera

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA



ESCUELA OFICIAL DE IDIOMAS DE EIBAR

MATRIKULA LIBREA

Otsailaren 2tik 9ra
Egiaztagiria lortzeko azterketa deialdia
IKASGUNEA plataformaren bitartez

ENGLISH, EUSKARA, FRANÇAIS, DEUTSCH

Argibide gehiago: eoeibarheo.hezkuntza.net / 943 899275

36,18€




FUNEUSKADI
Funeraria mugica



TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeraria mugica



TANATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27 Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industriaidea (Olasoko hilerriaren ondoan) Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



Eibarren sanblasak bedeinkatzeko ohitura haundia egon da betidanik eta, sasoi batean, umeei jai ematen zieten eskolan, San Blas egunean elizara joan eta opilak bedeinkatu ahal izateko. EGOIBARRA

San Blas opilak. Gregorioren osaba eta beste bat (Oiarbide) hasi ziren Eibarren San Blas opilak egiten.

San Blas opilen aitzindariak Eibarren

Gregorio Kortaberria
(1916 – 2004)



Antzuolako baserri batean jaiotakoa, 13-14 urte zituenean Eibarko tio bat joan zitzaion bila, berarekin lanera eramateko. Tio pasteleroa zen eta ogibide hori ikasi zuen Gregoriok. Gerra Zibila hasi zenean, berak 20 urte zituen. Eibartik irten ziren eta herriz herri ibili ondoren, Bilbora heltzea lortu zuten. Handik, Asturiasera. Batetik bestera ihesi, sasoi illunak izan ziren haiek (konzentrazio esparrua, "Batallón de Trabajadores"...).

Gregorio Kortaberriari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Hala ere, bada ohitura bat Eibarren: sanblasak. Eta hortan ere, Gregorio, zuk zerikusirik baduzu]. Bueno! Nik ez asko, baiña nere osabak bai. Nere osaba eta beste bat hasi ziran lehelengo, Eibarren, sanblasak egitten. Lehelenguak geu gara Eibarren. Hortxe amaitzen da. [Eta zer dira San Blaseko opil edo horiek?] Sanblasak, dira, ba, bizkotxo on bat eta gero gaiñetik egitten detsazu baiñu bat: arrautza zuringuakin eta azukriakin egitten da pasta bat eta harekin gero gaiña zuritzen jako. Oso onak! [Eta anis apur bat]. Anisa be bai, dana, dana. Arrautziakin, arrautza onakin eta uruna eta dana! [Erroskila izan ordeztu opila dala]. Bai, baiña erroskillia egitten da zertxuagua, merketxuagua edo ez dakitt... Hori hobia da. [Orduan, inbentoreak zuek!] Bai, nere osaba. Oiarbide edo, bestia izan bihar eban. (...) Bai, geure... nere osabatik dator lehelengo-lehelengo sanblasa Eibarren (...) Oin etxe guztietan be ikasitta dagoz, oin danak egitten dabe. Baiña ona, geurian!

2026

IKASENPRESA

Azoka - Feria

**FP Euskadiko
ikasleen
BERRIKUNTZA
eta TALENTUA**

INNOVACION y TALENTO del
alumnado de FP Euskadi

**Otsailak
5 Febrero**

10:00 / 13:00 h

EIBAR

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAIA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION

 ik senpresa
Impulso de la innovación en el sector público

 tilent
Elaboración de soluciones tecnológicas para el sector público

 Fp
Formación Profesional

 EIBAR
Universidad Eibar

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



ik sennresa

itlent

Ulfen Tulleriusen, Danish Institute of Education
Mona and Tulleriusen in PP Danish Ministry
Institute of Talent in UST



Eibarko PROFESIO LIBERALAK

ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

MARTA VALERA ECHALUCE

Fermin Calbeton 4, 3 D lokala

Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70

abogada@martavalera.es

AHOLKULARIAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15

Tel. 943 20 24 61

www.gaurve.com

consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4

Tel. 943 20 70 02

www.gestilan.es

gestilan@gestilan.es

BITARTEKARITZA

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua

Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

BITARTEKARITZA

“AMA IZAN ARREN, BIDAIAK E
EN DIRA”

“AMA IZAN ARREN, BIDAIAK E

MIRYAM TEJADA

Kazetaria, ekintzailea eta eduki-sortzailea da Miryam Tejada. Turismoan eta komunikazioan espezializatuta, bere esperientziaren bidez erakutsi nahi du umeein bidaiatzea posible dela, bai urrunera, bai gertuko planak aprobetxatuz. Sare sozialen bidez komunitate sendo bat sortu du, familia-bidaiei ikuspegi erreal eta hurbila emanaz.



Testua **IRATI ALVAREZ** Bideoa **OIHANE ZABALA**

Kazetaria da Miryam Tejada, eta bidaiak ditu pasio nagusi. Leioan ikasia eta Bartzelonan turismoan espezializatua, urteetan komunikazioaren eta bidaiaren arteko lotura landu du. 2024an turismo eta komunikazio agentzia propioa sortu zuen, eta gaur egun, sare sozialen bidez, familia-bidaien inguruko esperientziak partekatzen ditu, ama izan arren bidaiatzeko moduak eraldatzen direla erakutsiz.

Noiztik dator kazetaritzarako eta bidaietarako zaletasuna?

Txikitatik izan dut argi kazetaria izan nahi nuela; beti erakarri naute komunikazioarekin lotutako

munduek. Bidaiatzeko grina ere etxetik dator-
kit, gurasoek txikitatik transmititu zidatelako.
Horregatik, beti saiatu naiz komunikazioa eta
bidaiak uztartzen.

Nola otu zitzaizun zure enpresa propioa sortzea?

Lan-ibilbideak berak eraman ninduen horretara.
Urte askoan komunikazioaren eta turismoaren
arloan aritu ondoren, bi munduak modu natu-
rlean elkartzeko beharra sentitu nuen, eta nire
proiektua sortzea urrats logikoa izan zen.

Aurretik ere bi pasio horiek uztartu izan dituzu sare sozialen bidez.

EN; BESTE MODU BATERA BIZITZ

Z DIRA AMAITZEN; BESTE MODU

Bai. 2012an bidaia-blog bat sortu nuen, zazpi urtez martxan egon zena. 2018an desagertu egin zen kontua, eta orduan sare sozialetara salto egitea erabaki nuen. 2024an, enpresa sortu nuenean, Instagram modu profesionalagoan lantzen hasi nintzen.

**Zer erakutsi nahi duzu gaur egun sare sozia-
len bidez?**



Umeekin bidaiatu daitekeela, ama izateak ez duelako esan nahi bidaiak amaitzen direnik. Nire kasuan, bi umerekin bidaia luzeak eta ibilbideak egitea posible dela erakusten dut. Horrez gain, gertuko planak eta inguruko baliabide turistikoak balioan jarri nahi ditut, askotan ezezagunak dira-eta.

Erronka handia al da umeekin bidaia luzeak egitea?

Erronka dira, baina egingarriak. Antolaketa eta pazientzia behar dira, eta bidaia ondo prestatzea funtsezkoa da. Oraingo ez ditugu bidaia oso luzeak egin, baina esperientzia indartsuak bai; esaterako, nire semeek zortzi hilabete zituzte-nean Dolomitetara joan ginen familian.

**“Umeekin bidaiatzea
erronka da, baina
pazientziarekin eta
antolakuntzarekin
guztiz egingarria da.”**

Eguneroko planak ere erakusten dituzu.

Bai, inguruko esperientziak, jarduerak eta planak partekatzen ditut. Kolaborazioak ere egiten ditut, eta asteburuak semeekin aprobetxatzeko modu polita da.

Baduzu bereziki gustatu zaizun bidaiarik?

Zaila da bat aukeratzea, baina Oman oso berezia izan zen. Hamabost egunez ibili ginen basamortuan barrena, eta oso herrialde interesgarria da.

Nolakoa da komunitatearekin duzun harremana?

Oso gertukoa. Gehienbat amek osatzen dute, eta denborarekin sareetatik harago doazen harremanak sortu dira.

Azkenik, zer mezu zabaldu nahiko zenuke?

Bidaiatzea oso aberasgarria dela, eta diru askorik izan gabe ere posible dela. Beste errealitate batzuk ezagutzea funtsezkoa da, bai helduentzat bai haurrentzat.

BATERA BIZITZEN DIRA “AMA IZAN AR

REN, BIDAIAK EZ DIRA AMAITZ



“Txanpon baten truke” ikuskizun jendetsua hartu zuen barixakuan Coliseo antzokiak

Joan den barixakuan “Txanpon baten truke” izeneko ikuskizuna ekarri zuen Eibarrera ...eta kitto! Euskara Elkartek Ongietorri eta Gurasoak Berbetan programen barruan. Txintxeta, Klipa eta Txorroak pailazoekekin barre algara eta dantza mordoa egin zituzten Coliseora hurbildu ziren haur zein helduek. Urte hasierarekin batera antolatu ohi du ...eta kitto!-k familientzat ikuskizuna. Aurten Bizkaia aldetik etorritako hiru pailazoen txanda izan da eta ez dute huts egin.



Torrekuako parkeak hartu zituen Barixakuak Jolasian-eko jolasak

Joan den ostiralean Torrekuako parkean antolatu zituen ...eta kitto! Euskara Elkartek Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak. Ordubete dibertigarria pasa zuten bertara hurbildu ziren txikiek euskaraz eskaini zitzaizen aisialdian. Bitartean, bertan zeuden gurasoek, ...eta kitto!-k antolatzen dituen Ongietorri eta Gurasoak Berbetan programen berri jaso zuten elkarte teknikeri baten eskutik. Gaur, urtarrilak 30, Urkizuko parkean egingo dira jolasak 17:00etatik 18:00etara.



Gaur jaso dute eskoletan Txikitto! hilabetekaria

Lehen Hezkuntzako ikasleen eskutan da jada Txikitto! hilabetekariaren urtarileko alea. Urteko lehenengo alean historiaurreari buruz ikasitakoa azaldu digute La Salle Iasiko ikasleek, eta Iturburu Nile eta Xanet bikiak amama Maiterekin batera jarri ditugu elkarritzetan. Horrez gain, ez dira falta ohiko txiste, ipuin, liburu-gomendio, errezeta eta bitxikeriak.

ETXEKO BEROKUNTZAREN ARO BERRIA: ERAGINKORTASUNA, KONTROLA ETA JASANGARRITASUNA



Aldaketa martxan da. Berokuntzaren mundua eraldatzen ari da. Sistema eraginkorragoak, adimentsuagoak eta jasangarriagoak gero eta presenteago daude gure etxeetan. Herritarrentzat, erosotasun handiagoa eta faktura txikiagoa esan nahi du. Ingurumenarentzat, etorkizun arduratsuago baterako urrats bat.



EtxeGi
ITURGINTZA

634 40 57 83
615 78 12 30
614 21 55 13

Pagaegi 1, erdiakotia
etxegi.iturgintza@gmail.com



Azpiri

EIBAR • AMOREBIETA • DONOSTIA

Calbeton, 23
943 12 07 91

Matsaria, 2
943 20 35 12

ARRIAGA SANEAMENDUAK

Saneamendua - Ur hotza eta beroa
Gasa - Kalefakzioa
Bainugelen erakusketa

943202034 Arrugeta, 2 bis A adm.arriaga@gmail.com

Gasa. Kalefakzioa. Klimatizazioa. Eguzki Energia



Jardines
Iturgintza

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637

Jardifeta, 11 B
info@fontanerijardines.net



bravo
ITURGINTZA

629 97 70 57

Bero-ponpa: zergatik da momentuko protagonista nagusia?

Bero-ponpa gero eta gehiago entzuten den sistema da, eta ez alferrik. Inguruan dagoen energia (airetik, lurretik edo uretik) aprobetxatzen du etxea berotzeko edo hozteko, oso kontsumo txikiarekin. Horri esker, gaur egun dagoen berokuntza-sistematik eraginkorrenetakoa da.

Ohiko galdarek ez bezala, bero-ponpak ez du beroa sortzen, lekualdatu egiten du. Horrek esan nahi du kontsumitzen duen energiaren aldean errendimendu handia lortzen duela. Gainera, sistema bakar batekin etxea berotu daiteke neguan, freskatu udan eta ur bero sanitarioa sortu urte osoan zehar.

Etxe berrietan ez ezik, berrikuntzetan ere gero eta gehiago erabiltzen da, batez ere lurzoru erradiatzailearekin edo tenperatura baxuko erradiadoreekin konbinatuta. Horri gehitu behar zaizkio azken urteotan martxan jarritako dirulaguntzak, sistema hau etorkizuneko apustu sendo bihurtzen dutenak.

Etxe adimendunak: berokuntza konektatua eta mugikorretik kontrolatua

Erosotasuna ez da soilik tenperatura egokia izatea. Gero eta gehiago baloratzen dira kontrola, malgutasuna eta aurrezpena. Horretan, berokuntza adimendunak jauzi handia ekarri du.

Termostato adimendunen eta sistema konektatuen bidez, berokuntza mugikorretik kontrola daiteke, edonondik eta edozein unetan. Horrela, posible da:





- Ordutegiak eguneroko errutinetara egokitzea
- Gela bakoitzeko tenperatura bereiz kontrolatzea
- Kontsumoa unean-unean ikustea
- Etxetik kanpo egonda ere berokuntza piztu edo itzaltzea

Sistema hauek, erosotasuna handitzeaz gain, energia-aurrezpen nabarmena ekartzen dute, beharrezkoa ez denean berokuntza martxan egotea saihestuz. Gainera, mantentze-lanak errazten dituzte eta matxurak lehenago antzematea ahalbidetzen dute.

Berokuntza eta jasangarritasuna: emisiorik gabeko etxerantz

Energia-eredu berrirako trantsizioak etxeetara ere iritsi dira. Berokuntzak pisu handia du etxebizitzaren energia-kontsumoan, eta horregatik funtsezkoa da sistema jasangarriagoen alde egitea.

Bero-ponpak, energia berriztagarria eta isolamendu egokia uztartuz, emisiorik gabeko etheen kontzeptura hurbiltzen gara. Horrek esan nahi du berokuntza eraginkorra izan daitekeela ingurumenari kalte egin gabe.

Eguzki-plaka fotovoltaiakoekin konbinatuta, onurak are handiagoak dira: energia gutxiago kontsumitzen da sare elektrikotik, eta epe luzera aurrezpen ekonomikoa ere nabarmena da. Berokuntza, horrela, gastu hutsa izatetik etxebizitzaren balioa eta iraunkortasuna handitzen dituen inbertsio bihurtzen da.

ELEKTIBAR, S.L.U.
ib **ELEKTRIZITATEA**
JOSU BENGOA
PROIEKTUAK
ARGIZTAPENA
INSTALAZIOAK

- ERREFORMAK
- TELEKOMUNIKAZIOAK
- ATE AUTOMATIKOAK
- BERO URDINA

Indalezio Ojanguen, 2
 943 70 05 42
 electibar@gmail.com
Eskaeru aurrekontuak konpromisorik gabe

imigas | GILDAREN
 BERRIKUSPENA ETA
 MANTENIMENDUA
943 17 07 00 - imigas.es - ERMUA
 Kosner / Intergas / ACV / Brava / Tesolin / Fontecal
 ZERBITZU TEKNIKOA

fonta.amana@gmail.com

AMAÑA
 FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALIFAKZIOA
 BAINUEN DISEÑUA ORDINADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anita 12 Tel. 943 201 930

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK

- AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA.
- KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA.

Sidebarrieta, 28 Tel./Faxo: 943 20 28 28
 Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415
 info@ventanasona.com / www.ventanasona.com

Berokuntza funtsezko elementua da gure egunerokoan, baina azken urteotan asko aldatu da sistema horiek ulertzeko eta erabiltzeko modua.



INA OIARTZABAL ERRASTI

Berdegunerik gabeko hormigoizko hiria

Bukatzeaz dira Eibarko pasealeku berria: kilometro bateko pasealeku airekoa, bertara iristeko eskailerak edo igogailua erabili beharko dituenak. Bitxia bezain kezagarria.

Proiektuak inguruko ehundaka herritarri eragingo dien kalteaz eta kostu ikaragarriagatik harago (oraingoz, kilometro bateko pasealekuak 24.500.000 euroko gastua du), Barrenatik Electrociclorantz begiratzean ikus daitekeen hormigoizko pareta, igogailu eta egitura erraldoiak pena eta egonezina sortzen ditu: beste hormigoizko munstro bat eraiki dutela dirudi.

Hiriaren irudiaz iritzi ezberdinak egon daitezke, baina zer nahi du etorkizuneko eibartar gazte batek edo Eibarrera bizitzera etorri nahi duenak? Non daude hiri barruan natur parkeak eta zuhaitzez osatutako berdeguneak? Zer behar du bizi kalitatea eskaintzen duen hiri atsegin batek?

Duela hilabete batzuk Berria egunkarian argitaratutako artikulu batek gogorarazten zuen moduan, asfaltoaren eta zarataren erdian, berdeguneak arnaguneak dira: itzala ematen dute, airea garbitzen dute, beroa eta estresa gutxitzen dituzte, eta herritarrak naturarekin lotzen dituzte. Gainera, klima larrialdiaren aurrean, ez dira apaingarri hutsak, babesguneak baizik. Europako erakundeek berdeguneak handitzea gomendatzen duten bitartean, Eibarren udalak jasangarritasunaz hitz egiten jarraitzen du, baina berriro ere hormigoia lehenetsi du.

Agintariek ezin lukete arnagunerik gabeko hiri batekin amestu. Zuhaitzek eta berdeguneek funtsezko rola dute klima aldaketaren aurkako borrokan, bero-boladak arintzen, airearen kalitatea hobetzen eta herritarren ongizatea bermatzen.

Oraingoan ere, badirudi aukera galduko dela Barrenan, erreka inguruan, belar eta zuhaitzez osatutako gunerik gabeko sortzeko. Ingurumenaren aldeko borroka handiak beharrezkoak diren bezala, Eibarko hiri eremuan ere hormigoia murriztu eta etorkizuneko hiri berde baten aldeko apustua egitea ezinbestekoa da, eibartarren bizi kalitatea benetan hobetzeko.

“Ingurumenaren aldeko borroka handiak beharrezkoak diren bezala, Eibarko hiri eremuan ere hormigoia murriztu eta etorkizuneko hiri berde baten aldeko apustua egitea ezinbestekoa da”

Euskeraz
primeran!

eta kitto!
euskara elkarte

X. GILDA LEHIAKETA EIBARREN



OTSAILAK 3, 4, 5



HERRITARREK
AUKERATUTAKOA
150 €

TABERNETAN BOZKATZEKO
KUTXAK ETA ORRIAK EGONGO
DIRA



EPAIMAHAIAREN SARIA:
TRADIZIONALA: 150 €
BERRITZAILEA: 150 €

EPAIMAHAIKIDEAK:
MIREIA ALONSO
JOSU MUGERZA
XABIER ALBIZU

BOZKETAN PARTE HARTZEN DUTEN BEZEROEN ARTEAN
BERTOKO PRODUKTUEZ OSATUTAKO OTAR EDER BAT
ZOKKETATUKO DUGU.

X. GILDA LEHIAKETA

UNTZAGA, 4

AKARA



T. ETXEBARRIA, 2

AMETSA



TIBURZIO ANITUA, 5

AZKENA



F. CALBETON, 26

BANAKA



BISTA EDER, 2

BELEKO



EGO GAIN, 7

BOSSA



F. CALBETON, 6

KOSKOR



ZULOAGATARREN, 3

KULTU



SAN ANDRES PASEALEKUA, 3

NUVOLA



OTSAILAK

3, 4, 5

EGO GAIN, 4

BACOLEKU EGO GAIN



URKIZU, 11

BACOLEKU URKIZU



URKIZU, 11

BAISI



TORIBIO ETXEBARRIA, 16

DEPOR



UNTZAGA, 3

GURIDI



EGO GAIN, 6

KONTENT



EGO GAIN, 2

TOPA-LEKU



ERREBAL, 24

TRINKETE



SOSTOATARREN, 4

ZELAI BIDE





Gazte Eguna egingo da Futbol 7 txapelketari laguntzeko

E.B. Ekainean egin ohi den kuadrillen arteko IPQ Futbol 7 Txapelketak 5. urteurrena beteko du aurtan eta antolatzaileek, IPQ-k, zerbait berezia prestatu nahi dute. Iaz 600 lagunek hartu zuten parte lehiaketan eta bazkarian 500 elkartu ziren. Beraz, pentsa daiteke ez dela batere erraza hori guztia prestatzea eta, antolatzaileek esan digutenez, “iaz ez genuen diru askorik irabazi, ia-ia galdu egin genuen”.

Gauzak horrela, eta aurtan zerbait are bereziagoa prestatzeko gogoz, Gazte Eguna prestatu dute otsailaren 7rako.

Egun osoko egitaraua antolatu dute, Untzagan karpa egongo dela aprobetxatuta. “12:00etan txosna zabalduko dugu, eta egun osoan zehar egongo da zabalik”, aurreratu digutenez. “Musika, pintxoak,

tragoak... Giro ederra egongo da”.

Gazte Eguna prestatzeko Udalaren laguntza jaso du IPQ-k, “zati bat eurek ordainduko dute eta beste bat guk”, esan digute futbol zaletuek. Horrela, 19:00etatik aurrera hiru musika emanaldi egongo dira:

Hasteko, Rock You arituko da. “Beste taldeen bertsoiak egiten dituzte: Fito y los Fitipaldi, AC/DC eta horrelakoak”, dioskue antolatzaileek.

Gero dantzan egongo dira eta, ordu erdiko atse-denaldiaren ondoren, Zopilotes Txirriaos talde nafarrak joko du.

Eta egunarekin amaitzeko, DJ Rokak gaua girotuko du; jaia 04:00 inguruan amaituko da.

Horrez gain, egunean zehar hainbat jolas egiteko asmoa dute antolatzaileek.



Malape futbol zaletuko ligako txapeldun

E.B. Malape Tabernak ez du zalan-tzarako tarterik laga eta, liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan, liga irabazi du. Lehen bi sailkatuen arteko lehia egon zen jokoan domekan, Xania Malaperen aurka, baina liderrak denboraldi osoan erakutsitako nagusitasuna berretsi eta 2-4 irabazi zuen.

Malaperen jokalariek bazekiten atzokoa irabaziz gero liga eskuratzeko zutela, zapatuan Bar Maremek 4-1 galdu zuelako Kalaka Buenos Airesen aurka. Gauzak horrela, liderrak dena eman eta txapeldunen kopa merezimendu osoz altxatu zuen. Liga eta gero, Kopa jokatuko dute.



egin zuen 200 bularrean, Asier Gomezek hirugarren postua lortu zuen 200 librean, Anes Abderrahmanek hirugarrena 50 librean, eta Itsaso Castrillok bigarren tokia eskuratu zuen 200 librean.

Emaizta horiez gain, Paula Calvoren errendimendu bikainak aitortza berezia ekarri dio. Izan ere, Espainiako Igeriketa Federazioak hautatu du teknifikazio nazional batean parte hartzeko. Jarduera otsailaren 1etik 7ra bitartean egingo da Madrilen.

Bestalde, joan den domekan, Azpeitiko polikiroldegian Teknifikazio Saria ospatu zen. Bertan, Eibar Igerixako Alazne Avellana (2014), Paule Martin (2014), Xabat Limia (2013), Paul del Rio (2013) eta Gorka Castrillo (2013) aritu ziren lehian, eta azken honek hirugarren postua lortu zuen 200 libre proban.

Eibar Igerixan bikain Camargoko Txapelketan eta teknifikazio jardunaldietan

E.B. Camargoko Txapelketa jokatu zen zapatuan, eta Eibar Igerixan klubeko talde federatuak maila bikaina eman zuen, emaitza esanguratsuak eta podium ugari eskuratu. Adibidez, Paula Calvok

bi garaipen lortu zituen, 100 bizkar eta 200 libre probetan, eta txapelketa sailkapen orokorrean bigarren postuan amaitu zuen. Ander Izaguirre lehena izan zen 50 librean, Jokin Onkak bigarren

LAN ESKAINTZA

...eta kitto! Euskara Elkarteak ADMINISTRARIA behar du

EGIN BEHARRAK

- Administrazio- eta kontabilitate-kudeaketa.
- Fakturazioa, kobrantzak eta ordainketak.
- Aholkularitza zerbitzuarekiko harremana.
- Dirulaguntzak eta dokumentazioa kudeatzea.
- Hornitzaile eta laguntzaileentzako arreta administratiboa.
- Barne-kudeaketarako laguntza.

ESKAKIZUNAK

- Administrazio-zereginetan prestakuntza eta eskarmentua.
- Euskarazko C1 ziurtagiria edo baliokidea.
- Antolatze eta lan autonomoa egiteko gaitasuna.

BALORATUKO DA

- Bete beharreko eginkizunekin zerikusia duten beste titulazio batzuk.
- Eibarren edo inguruetan biziitzea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna izatea.
- Proiektuarekiko atxekimendua.

ZER ESKAINTZEN DA

- Lanaldi osoko lan kontratua (mugagabea izateko aukerarekin).
- Ordutegi malgua eta kontziliaziorako aukera.
- Lanean hasteko data: martxoak 1
- Proiektu erakargarria. Langiro atsegina.
- 30 urteko ibilbidea duen elkarte kide izatea.

CVak bidaltzeko epea otsailaren 10era arte

elkartea@etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak



Deporreko xakelariak martxa betean ari dira

E.B. Gipuzkoako Taldekako Xake Txapelketaren hiru garren jardunaldia jokatu zen asteburuan eta Eibarko Klub Deportiboko taldeetatik bakarrak lortu zuen bere lehia irabaztea: Eibar B 3 -1 San Roke.

Domekan, Gipuzkoak Eskolarteko xake txapelketari dagokion Azkoitiko zonaldeko txapelketa jokatu zen eta alebinetan Yeray Martinez izan zen garaile, 4,5 puntu lortuta.



Hasiera bikaina Kalamua Judokoentzat Gipuzkoako Infantil Txapelketan

E.B. Judo Club Kalamuko bi ordezkari aritu ziren bertan: Uxue Gutierrez, -44 kiloko emakumezkoen kategorian, eta Josu Garro, -38 kiloko gizonezkoen kategorian.

Gutierrezek ez du azkenaldian entrenatzeko aukerarik izan lesio baten ondorioz, eta oraindik sendatzen ari da. Hala ere, bi borroka irabazi ondoren finalera iritsi zen eta bigarren postua eskuratu zuen. Josu Garrok ere bi borroka irabazi zituen eta hirugarren geratu zen.



Ipuruako gimnastak prest Gipuzkoako Txapelketarako

E.B. Ipurua Gimnasia Klubak indartsu ekingo dio urteari, herriko gimnastak Amateur eta Eskola mailako Gipuzkoako Txapelketan murgilduko dira-eta. Eibarko klubak kadete mailako bi talde aurkeztuko ditu lehia- eta senior, jubenil eta kadete mailako 17 gimnasta bakarka arituko dira. Bihar, Amateur Txapelketaren lehen sailkapen fasea jokatu da Bergaran; eta otsailaren 7an eta 8an, alebin eta infantilen txanda iritsiko da, Donostian. Eskola txapelketarako 60 ume inguru aurkeztuko ditu Ipuruak: bost talde alebin eta lau infantil lehiatuko dira lehen sailkapen fasean, eta hamar gimnastek egingo dute bakarkako lana.

Motorrak berotzen hasteko, urte hasierako erakustaldia egin zuten Ipuruan, joan den domekan.



Orbeako kiroldegiko fitness gelan hotz eta bero sistema berria jarriko du Udalak

E.B. Sistema berria urtarrilean ezarri dute, erabiltzaileen eskaerei entzunez. Udalak azaldu duenez, klimatizazio sistema berria instalatzeko 15.000 euro inguruko inbertsioa egingo da, eta horri beste 5.000 euro gehituko zaizkio instalazio elektrikoarekin lotutako lanak egiteko.



Elene Arrazola Euskadiko txapeldun 60 m-tan eta txapeldunorde 200 m-tan

E.B. Joan den asteburuan, maila absolutuko Pista Estaliko Euskadiko Txapelketa jokatu zen World Athletic egutegiaren barruan, Donostia-ko Belodromoan, Bertan, Eibarko Klub Deportiboko hiru ordezkari aritu ziren, Elene Arrazola, Alex Cuesta eta Elene Beitia, eta lehenak emaitza esanguratsuak lortu zituen, bi domina etxera ekarritz.

Zapatuan, 60 m-ko proban, iazkoa errepikatzeko asmoz irten zen pistara Elene Arrazola eta helburua bete zuen. Euskadiko azkarrena dela erakutsi zuen 7,67 segundoko denbora eginda, eta atzetik sartu ziren Durango Kirol Taldeko Irati

Solabarrieta (7,68 s) eta Santurtziko Ezkerrealdea A.K.T.-ko Irati Gomez (7,72 s).

Domekan, ostera, 200 m-ko proba lehiatu zuen eta gertu izan zuen garaipena. Eibartarrak 27,78 segundoko behar izan zituen 200 metroak egiteko eta irabazleak, Atletico San Sebastian taldeko Nora Buronek, 24,76 segundo. Atzetik Bilbao Atletismoko Iraia Vicente sartu zen (25,26 s).

Deporreko beste ordezkariak dagoenez, Alex Cuesta 5. postuan (6m 46zm) gelditu zen luzera jauzian, eta Elene Beitiak estreinaldia izan zuen txapelketan.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

Badalona - EIBAR (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Sporting (etzi, 16:15)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Burgos (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Bizkerre - EIBAR B (bihar, 16:00)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

URKI - Beasain B (bihar, 12:35)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

EIBARTARRAK - Aloña Mendi (bihar, 18:00)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

Villegas - EIBAR (bihar, 16:00)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

Ariznabarra - URKI (bihar, 16:00)

FUTBOL-ZALETUA

- Kalaka Bs As. - Baserri (bihar, 09:00)
- Xania Taberna - Bar Maren (bihar, 10:30)
- Malape - Garajes Garcia (etzi, 09:00)
- Bergara Pn. - Adahi Etxegi (etzi, 10:30)
- Atsedena: Limpiezas Rueda

ESKUBALOA

Zilarrezko Maila (em)

Sustatuz - EIBAR ESKUBALOA (bihar, 18:30)

1. Maila Nazionala (gi)

Egia - EIBAR ESKUBALOA (bihar, 18:00)

Seniorren Euskadiko Liga (gi)

EIBAR ESKUBALOA B - Saieko (bihar, 19:00)

Seniorren 1. Lurraldekoa (em)

EIBAR ESKUBALOA B - Tolosa (etzi, 13:00)

WATERPOLOA

2. Maila (gi)

URBAT - Tenerife (bihar, 20:15)

Euskal Herria Liga (em)

URBAT - Urgara (etzi, 14:45)

Kirol albiste gehiago
gure webgunean



LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMIAK
Enkarguak etxera

**PUBLI
RESA**
osagamen personalizazioa

www.publiresa.com
943 701 497 / 687 879 667

merchandising
serigrafia
lanerako erropa

Armagin 3-5 beheak
publiresa@publiresa.com

“Idazketaren bitartez begiratzan diot munduari”

UXUE ALBERDI • Idazlea



2007an “Aulki bat elurretan” nobela osatzeko lgartza saria jaso zuenetik literaturaren genero ugari landu ditu Uxue Alberdik (Elgoibar, 1984): haur eta gazte literatura, kronika, saiakera, narratiba... “Hetero” du azkeneko lana (Susa, 2024), zortzi ipuinez osatutako ipuin-bilduma, “gai batetik abiatu gabe, barruak eskatu ahala idazten joan naizen ipuinen bilduma”. Joan den astean izan zen liburu horrekin Eibarren, Juan San Martin liburutegiak eta ...eta kitto!-k elkarrekin antolatzen duten “Idazlearekin Harixa Emoten” irakurle-taldean.

Testua **MAIDER ARANBERRI**

Askotariko zortzi ipuin bildu dituzu “Hetero” liburuan. Non dute jatorria ipuinok?

Liburuan bildu ditudan zortzi ipuinak hiru urtetako idazketa, irakurketa eta arakatzeko lanaren emaitza dira. Ipuinik zaharrena 2020koa izango da, baina gehienak 2021. eta 2025. urteen artean idatzitakoak dira. Idazketa jarraitu bat da niretzat, idazketaren bitartez begiratzan diot munduari, begiratzan diet harremanei, nire emozioei, memoriari, paisaiari. Ipuin bakoitzak bere prozesua eduki du. “Hetero” bilduma da. Ez da abiatzen gai batetik edo aurretiazko asmo jakin batetik. Ipuinak idazten joan naiz barruak eskatu ahala eta saiatu naiz istorio bakoitzari bere forma bilatzen. Askok jo dut irakurketara eta batez ere berrirakurketara, miresten ditudan eta liluratzen nauten ipuingileen hainbat liburu eta ipuin berrirakurri eta aztertu ditut, hainbat gauzatan fikatuz, nola egituratzen duten ipuina, nola egiten duten jauzia orainalditik iraganera... eta inportantea, saiatu naiz oharren zergatik gustatzen zaizkidan hainbeste hainbeste gustatzen zaizkidan idazleak.

Ipuinok ba al dute batzen dituen haririk? Tituluak hori iradoki dezake...

Askotan liburuak gehiegi tematizatzen digutu eta ez naiz ni horren aldekoa, ez zaizkit hainbeste interesatzen gaira mugatzen diren literatur proposamenak, ez eta tramari berebiziko garrantzia ematen diotenak ere, nahiago dut bizitzaren anabasa hori ahalik eta modurik diferenteenean jasotzen asmatzen duten literatur lanak. Alde horretatik tituluak arriskua izaten dute eta “Hetero” tituluak badauka arrisku hori, oso bideratua eman

dezakeela gai batera eta agian espektatiba faltsuak sor ditzake, hainbatek pentsa dezakete heteroarauari edo heteropatriarkatuari buruzko kritika edo analisi esplizitu bat izango dela eta nire proposamena proposamen literarioa bat da. Aldi berean uste dut tituluak ematen diola argi bat, eta bada gonbidapen bat normatiboa den hori desnaturalizatzeko eta bestela ikusiko ez genituzkeen detaileetan fikatzeke.

Nola neurtzen duzu errealtatearen eta fikzio narratiboaren arteko distantzia?

Oso inportantea da errealtatea eta errealtate literarioa bereiztea. Hau da, errealtatea ezin da idatzi, izatekotan errealtatea da. Eta zerbait idazten dugunean distantzia bat dago errealtate horretatik, hitzetan eta hizkuntzaren bidez prozesatzen dugunean. Heteron proposatzen ditudan ipuin guztien elaborazioa diferentea izan da eta distantzia hori ere, nolabait bizipen errealeatik fikziozko testura dagoen elaborazio hori ere desberdina da testu bakoitzean. Kontu hauek denak oso engainagarriak dira, ze askotan gauza fantastikoa eman dezakeen ipuin batean egon daitezke kontu biografiko mordo bat. Eta, aldiz, oso naturalista, oso errealista dirudien zerbaitekin eman dezake errealtate itxura, baina ez dugu ahaztu behar artefaktu bat dela, eraikuntza bat dela eta maiz idazleak gauza gehiago asmatu dituela hor beste batzuetan baino.

Nola jakiten duzu istorio batek zein forma edo genero hartuko duen?

Hori ere oso gauza sorgina da, ez da bakarrik arrazionalitatearen bidez erabakitzen. Batzuetan batera etortzen

“Idaztea etengabeko selekzio bat egitea da, eta hautaketa hori testu definitiboa idazten hasi aurretik egiten dut”

zaizkizu forma eta edukia, nolabait kontatu nahi duzunak esaten dizu nola kontatu behar duzun, beste batzuetan badaukazu hor istorio bat edo zerbait kontatu nahi duzuna baina ez diozu formarik aurkitzen, edo halako batean zerbait irakurrita edo ideia bat izanda edo perspektiba bat ikusita edo hizkuntzaren bitartez lengoia literario bat topatzean esaten duzu: agian hemendik jo dezaket. Lan eginez eta asko irakurriz eta pentsatuz eta imajinatuz eta probatuz, horrela topatzen du istorio bakoitzak bere forma, topatzen baldin badu, ze badaude hainbat istorio ateratzen ez direnak idazleak ez duelako topatu hura egoki kontatzeko modurik.

Hogei urte daramatzazu bai idazle eta baita bertso-lari moduan ere. Zein bilakaera izan duzu urte haue-tan guztietan?

Oso txikitatik izan dut hitzekiko pasio hau, istorioekikoa, kontatzearekikoa, eta beti jarri izan dut erdigun-ean. Izan dudana bilakaera izan da askoz ere irakurle esperientzia handiagoa daukadala, eta bizi-esperientzia handiagoa ere bai. Eta bizitzako etapa bakoitzean gara gauza batzuk esperimintatzeko, ulertzeko, izendatzeko, eta elaboratzeko gai. Uste dut hor badagoela garapen bat, baina oinarri-oinarrian nire bizitzan kontatzea eta besteen kontuak entzutea aspalditik dauden zerbait dira, beti zaindu izan dudana altxor bat.

Zer behar duzu idazteko?

Oso diferentea da kasu bakoitzean. Batzuetan badago bizipen bat mugitzen zaituena eta hori ulertzeko has-ten zara idazten edo oharrak hartzen; beste batzuetan gertatu zait konturatzea halako nostalgia antizipatu bat izan dela motorra... Idazle bakoitza diferentea da baina idazle askoren pultsioa da mundu honetara eto-rri garenez, tokatu zaigun errealitate zati txikitxo hori, bai tenporalki bai geografikoki bai bizipenen aldetik, hitzetan jartzea. Liburu bakoitzaren motorra diferen-tea izaten da eta gainera istorio bakoitzak eskatzen dizu istorio hori kontatzeko modu bat bilatzea. Eta horretan joaten zaigu bizitza.

Nola bizi izaten duzu idazketa-prozesua, nola egi-ten duzu lan?



Idaztea da etengabeko selekzio bat egitea eta hautaketa hori testu definitiboa idazten hasi aurretik egiten dut normalean, hurbilketa lan bat dago, oharrak hartzen ditut, modu diferente askotara, batzuetan sukarrak hartuta bezala; edo zerbaiten inguruko ohar mordo bat hartzen ditut denbora tarte laburrean, edo artxibo bat ireki eta zerbaiten edo gai baten inguruko edo paisaia baten inguruko edo dena delakoaren inguruko oharrak pilatzen joaten naiz eta agian momentu baten esaten duzu: hemen material pillo bat daukat, honi forma eman behar diot.

Eta behin lana argitaratuta, nola bizi duzu fase hori?

Segun, denetik gertatzen da. Jasotzen ditugu oso gauza ederrak eta gauza itxusiak ere bai, epaituak dira gure lanak, askotan gu ere bai, baina batez ere esker ona ja-sotzen dut, zorionez ezin naiz kexatu irakurle faltagatik, eta gainera uste dut gaur egun daukagun irakurle-tal-de sarea luxu bat dela. Heterorekin 45 taldetan baino gehiagotan egon naiz; horrek esan nahi du ez dakit, 600, 700 irakurlerekin egon naizela aurrez aurre. Hori ezin da ordaindu diruarekin. Fase guztiek dituzte euren alde nekezagokak eta aldi berean disfrutatu daitezkeenak eta ni saiatzen naiz ahalik eta gehien disfrutatzen haietako bakoitza.



Otsailaren 7an ospatuko dira Eibarko Koko-dantzak

S.H. Hurrengo asteburuan, otsailaren 7an (zapatua) ospatuko dira aurreko koko-dantzak, Kezka Dantza Taldearen eskutik. Goizeko 09:00etan egingo dute lehen agerraldia, Errebalen, eta ondoren baserrietako koko-eskea egingo da, Otaola eta Mandiola auzoetan, 10:00etatik 14:00etara. Ipurua, Otaolaerdikoa, Sosola, Sosolabarri, Aritxulueta barri eta Arrajola baserrietara joango dira. Eta arratsaldean Eibarko kaleetan kalejira egingo da, Eibarko Klub Deportibotik abiatuta. Toribio Etxebarrian elkartuko dira koko-mokoak, 18:45ean, eta Mauxitxa txarangarekin batera ibiliko dira kantuan eta dantzan, erdigunean, 21:00ak arte.

Edozeinek hartu dezake parte koko-dantzetan eta, animatzen direnentzat, entsegu irekia egingo dute otsailaren 5ean, eguenean, 19:30ean Errebal Plazan.

Sexu-hezkuntzari buruzko saioa egingo da Ipuruako Merkatuan

S.H. *Sexu-hezkuntza nola egin* izeneko jardunaldia egingo da otsailaren 1ean, domekan, 10:00etatik 13:30era, Ipuruako Merkatu Plazan. Ekimenak sexu-hezkuntzari lotutako hainbat gai landuko ditu:

sexualitatea zer den, zer esparru hartzen dituen, zergatik den hain garrantzitsua, maitasun erromantikokoaren inguruko ikuspegiak... Jardunaldia irakasleei eta familiei zuzenduta dago, eta tailer gidatuen bidez garatuko da, Izaten Bizi-ko Usua Anituaren eskutik. Ipurua Merkatu Plaza elkarteak antolatu du, Eibarko Udalaren laguntzarekin, eta sarrera librea izango da.



Benetako artelanak egin dituzte “Kolasean”

S.H. Topalekun ikusgai dagoen *5.393 arrazoi*, Mireia Agirrebeña Ubera eibartarraren erakusketaren harira, eguazten arratsaldean collage tailerra egin zen. Artistak esan digunez, “oso talde jatorra inguratu zen Topalekura. Argazkian agertzen direnekin batera beste batzuk ere aritu ziren. Askorentzat collagea egiten zuten lehen aldia izan zen, eta oso lan onak burutu zituzten, itzelak”. Domekara arte egongo da erakusketak Topalekun. Gaur (barixakua) 18:30etik 20:30era bitartean zabalduko dute eta, asteburuan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.




“Tully” amatasunari buruzko filma zine-forum feministan

S.H. Datorren asteko barixakuan (otsailak 6) izango da Pagatxa emakume elkartearen zine-forum feministaren otsaileko saioa, 18:30ean Portaleko areto nagusian. Amatasunaren gaiari buruz arituko dira eta, horretarako, Jason Reitman zuzendariaren *Tully* emango dute. Pelikulan Marlo (Charlize Theron) hiru seme-alaba dituen ama bat da, eta bere anaiak (Mark Duplass) ustekabeko oparia egingo dio: gauez laguntzeko umezain bat (Mackenzie Davis). Sarrera librea izango da.



Gaur egingo dira II. Javier Gorosabel Astronomia Topaketak Coliseo antzokian

S.H. Gaur barixakua egingo dira II. Javier Gorosabel Astronomia Topaketak, Coliseo antzokian, 18:30ean. Bertan banatuko da aurtengo Javier Gorosabel Saria, bere 4. edizioan: OMEGA Asturiasko Astronomia Elkartek jasoko du, baina egitarauak askoz gauza gehiago eskaintzen ditu, zientzia eta kultura uztartuz, Gorosabel gogoratzeko. Tekniker ikerketa zentroak aurkezpen labur bat egingo du Azterna Sinoptikoak antzemateko Teleskopio Handiaren garapenean egiten ari diren lanari buruz; Iñaki Ordoñez Iruñeako Planetarioko zuzendariak parte hartuko du; eta Maite Arroitauregi *Murseg*o musikariak Mikel Laboaren *Izarren hautsa* interpretatuko du. Gainera, Calar Alto-ko teleskopioarekin konexioa egingo da eta, eguraldiak laguntzen badu, eguzki-sistemako planeta batzuk, galaxiak, nebulosak... ikusi ahalko dira, zuzenean.



Bisita gidatua erakusketara

S.H. Portalean ikusgai dagoen *Estali nazazu lorez*, Jon Amorroturen pintura erakusketara doako bisita gidatua egingo da bihar (urtarrilak 31), 18:30ean. Azalpenak euskaraz eta gatzelaniaz izango dira.



Alpeetako tronpa joko du Rodolfo Epeldek domekan

S.H. Urteko lehen kontzertua eskainiko du bandak domekan, 12:30ean, Coliseo antzokian. Sarrera batzuk oraindik eskuragarri daude (dohainik). Andoni Vazquez zuzendaria aurreratu digunez, errepertorio aldetik nahiko kontzertu ohikoa izango da, azken pieza salbu: Rodolfo Epelde tronpa-jole handiak Bandarekin batera joko du azken abestia, *Via Claudia* (J. De Meij), normalean ikusten ez den musika-tresna berezi bat erabilia. Zuzendariaren berbetan, "Alpeak gurutzatzen dituen erromatarren garaiko bide bat da Via Claudia. Horregatik, Alpeetako doinua emateko, Epeldek Alpeetako tronpa joko du. Guretzat ezohiko instrumentua da, ia lau metro dituen musika-tresna". Eskainiko dituzten beste piezak hauek dira: *Pepita Greus* (P. Chovi), *Katiuska* (P. Sorozabal), *Herri Txiki*ko Jaiak (E. G. Arroitauregi) eta *Ben-Hur* pelikularen soinu-banda (M. Rozsa).

Aratosteetako lehiaketak martxan

S.H. Aratosteetarako lehiaketak jarri ditu martxan Udalak aurten ere. Aste honetan zabaldu da izen-ematea kuadrillen kalejiran eta ondoen apaindutako tabernen lehiaketan parte hartzeko, Udalaren webgunean, eta bertan kontsultatu daitezke batean zein bestean parte hartzeko baldintzak. Kuadrillen lehiaketa otsailaren 14an (zapatua) izango da, 12:30ean. Helduen eta haurren kuadrillak onartuko dituzte, eta hainbat sari banatuko dira. Izena emateko epea otsailaren 11n amaituko da (tabernentzat lehiaketarako egun bat aurretik, otsailaren 10ean).



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

3	4			2			6	
7			4			3		
8	6	2			9	4		
6			1	4				
			6		7			
				3	8			6
		6	7			5	1	4
		5			1			8
	3			6			2	7

SUDOKUA


5	4	9	7	6	2	8	1	3
1	8	2	5	6	3	4	7	9
9	7	3	8	1	4	5	9	6
6	5	7	2	4	3	9	1	8
4								
4								
2	3							
1	2							
8	8							
8	8							
2	5	3	7	1	4	9	6	8
3	7							

7	2	6	9	4	5	6	3	8	1
8	9	1	6	2	7	5	4	3	9
3	8	7	5	9	1	4	6	2	8
9	2	6	7	3	8	5	1	4	9
5	1	7	9	3	8	6	2	4	5
2	8	4	6	5	1	7	9	3	8
6	9	3	1	4	2	7	5	8	6
8	2	3	7	9	6	4	5	1	8
7	5	9	4	1	6	3	8	2	7
3	4	1	8	2	5	7	9	6	3

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	4		8		2			7
	5				1	6	9	
		7					1	
4			1	5				
		2				1		
					2	4		9
	2					3		
	6	4	3				8	
3			2		6		4	

LABIRINTOA



Urtarrilak 30 - Otsailak 5

BARIXAKUA 30

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak, doan. ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. Urkizuko parkea.

TOPAKETA ASTRONOMIKOA

18:30 Javier Gorosabel II. Topaketa Astronomikoa". Doan. Coliseo.

MUS TXAPELKETA

21:00 Euskal Herriko XVII. Mus Txapelketaren kanporaketa. Kili-kili taberna.

ZAPATUA 31

TAILERRA

10:00/12:00 Klown tailerra, helduentzat (hastapena). Izen-ematea eta informazioa: 649 59 27 97 (Txeli). Ipuruko Merkatu Plaza.

ATE IREKIAK

10:30/13:30 "Ate irekien jardunaldia: tailerrak, jolasak, ipuin-kontalaria, puzkarriak... Amaña herri ikastetxea.

IKASTAROA

11:00 San Blas opilen ikastaroa, Edurne Zenarruza-beitiarekin. Arrate Kultur Elkartea.

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30-20:30 Astelena Haur Parkea. 3 euro (doan EMGI-ren bonoarekin). Astelena frontoia.

ZAPATUKO IPUINA

12:00 "Gora bihotzak!", Josune Garcia de Bikuñaren eskutik. Doan, aurretik hitzordua eskatuta. Portalea (areto nagusia).

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

BISITA GIDATUA

18:30 "Estali nazazu lorez", Jon Amorrorturen pintura erakusketara doako bisita gidatua (elebiduna). Portalea.

DOMEKA 1

HITZALDIA

10:00/13:30 "Sexu-hezkuntza nola egin". Irakasle eta familiei zuzenduta. Sarrera librea. Ipuruko Merkatu Plaza.

MANIFESTAZIOA

12:00 Eibar Palestinarekin herri ekimenak deitutako manifestazioa. Untzaga.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Doan, gonbidapenarekin. Coliseo.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 2

ATE IREKIAK

19:00 Ate irekien jardunaldiak. Eibar BHI (Isasiko eraikinean).

MARTITZENA 3

X. GILDA LEHIAKETA

Izena eman duten tabernetan. Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkartea.

INFORMAZIO-HITZALDIA

13:00/15:00 'Aurretiazko Borondateen Dokumentua' ezagutzeko eta formalizatzeko informazio-hitzaldia, Debabarreneko ESI-k antolatuta. Sarrera librea. Eibar Ospitalea (1. solairuko areto nagusia).

ANDRETXEASEX

17:00/19:00 Sexu-aholkularitza zerbitzua, doan. Hitzordua eskatu behar da (943 54 39 38 - 688 85 34 40). Andretxea.

ATE IREKIAK

18:00 Ate irekien jardunaldiak. Eibar BHI (Isasiko eraikinean).

EGUAZTENA 4

X. GILDA LEHIAKETA

Izena eman duten tabernetan. Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkartea.

LAN-AHOLKULARITZA ZERBITZUA

16:30/19:30 Lan-aholkularitza zerbitzua zaintzaile eta etxeko langileentzat. Doan. Andretxea.

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondateei buruzko informazio-zerbitzua, Ikasten-en eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

EGUENA 5

X. GILDA LEHIAKETA

Izena eman duten tabernetan. Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkartea.

IKASENPRESA AZOKA

10:00 Euskadiko Lanbide Heziketako ikasleen proiektu berritzaileak. Untzaga, Txaltxa-Zelai eta Errebal Plazia.

HITZALDIA

10:00/12:00 Miguel Arroita-jaregiren eskutik. Ikasten elkartek antolatuta. Sarrera librea. Portalea.

ARATOSTEAK

19:00/22:00 Koko-dantzen entsegu eta koko-jantzien banaketa (nahi duenak hartu dezake parte). Errebal Plazia.

ERAKUSKETAK

Urtarrilaren 30era arte
"Ikusi, entzun eta isildu"
Atalanta Ares-en zeramika erakusketa. Andretxea.

Otsailaren 1era arte
"5.393 arrazoi", Mireia Agirrebeña Uberaren erakusketa. Topaleku.

Otsailaren 1era arte
"Errobera artean". Eibarko Armagintzaren Museoa.

Otsailaren 16ra arte
"Estali nazazu lorez", Jon Amorrorturen pintura erakusketa. Portalea.

Otsailaren 2tik 28ra
"Zientzia-emakumeak argira", Elhuyar Fundazioaren eskutik. Andretxea

ZINEA COLISEO



“Ídolos”
DRAMA
2026/Espainia /126’
Zuzendaria: Mat Whitecross
Aktoreak: Óscar Casas, Claudio Santamaria, Ana Mena
Kirola. Motoak.

1 ARETOA

- **31an:** 17:00, 19:45
- **1ean:** 17:00

ANTZOKIA

- **31an:** 22:30
- **1ean:** 20:00
- **2an:** 19:30



“Song Sung Blue”
DRAMA. ERROMANTZEA.
2025/AEB/131’
Zuzendaria: Craig Brewer
Aktoreak: Hugh Jackman, Kate Hudson, Michael Imperioli
Musika. Benetako gertaeretan oinarritua

1 ARETOA

- **31an:** 22:30
- **1ean:** 20:00
- **2an:** 19:30



“Nouvelle Vague”
DRAMA. KOMEDIA.
2025/Frantzia/105’
Zuzendaria: Richard Linklater
Aktoreak: Guillaume Marbeck, Zoey Deutch, Aubrey Dullin
Zinema zinemaren barruan.

2 ARETOA

- **31an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **1ean:** 17:00, 20:00
- **2an:** 19:30



“Oilaskoerbi eta Marmotaren sekretua”
ANIMAZIOA
2022/Belgika/91’
Zuzendaria: Ben Stassen, Benjamin Mousquet
Animaliak

ANTZOKIA

- **31an:** 17:00
- **1ean:** 17:00



Justina Urkiola Etxebarria

2026/01/24

Urak dakarrena urak daroa, baina zuk emandakoa gurekin geldituko da

ESKERRIK ASKO une latz hauetan gurekin egon zareten lagun eta familiako guztioi.
- ETXEKOAK -



Remedios Palomino Rodriguez

1. URTEURRENA
2025/02/01

“Beti egongo zara gure bihotzetan. Maite zaitugu”.

- ROCA FAMILIA -



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **MARKEL!**
Urtarrilaren 29an
8 urte bete zendu-
zen!! Mutil haundi!
Asko maite zaittugu!
Patxo handi bat
famelixaren partez.



Zorionak **NAHIA!**
Gaur 8 urte bete
dittuzu-eta. Patxo
potolo bat famelixa-
ren partez.



Zorionak **MIKEL!!**
Astelehenean bi
urte beteko dittuzu.
Muxu haundi bat
zure famelixaren
partez. Asko maite
zaittugu.



Zorionak **EKHI!**
Eguaztenean
5 urte bete dozuz.
Musu haundi bat Ei-
barko famelixaren
partez. Ondo ibili.
Happy Birthday.



Zorionak **ELAIA!**
Bixar urtetxo bat
betetzen dozu
iada! Musu potolo
bat famelixa guz-
tiaren partez!!



Zorionak, **UXUE!**
Gaur gure
printzesak 11
urte betetzen
dittu. Musu pilla
bat famelixaren
eta, batez be,
ibaitxoren partez.



Zorionak **PATXI!** Urtarrillan 26xan urtiak
bete zenduaz eta! 70 belarri tirakada
famelixa guztian, baña batez be Aukan
eta Lurren partez.

ARATOSTEAK 2026

euskara elkarte
PREGOIA

Otsailak 13,
barixakua
20:30
Depor
parean

(kaldereroen
kalejiraren amaieran)

**PLAY-BACK**
LEHIAKETA

Otsailak 15,
domeka
17:00
Untzagako
karpan



Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

- 3. LOKALAK**
- 3.1. Salgai**
- Garaje itxia salgai epaitegi azpiko garajeetan. 15 m2. Prezioa adosteko. 686 633 523.
- 4. LANA**
- 4.1. Lan bila**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindo eta garbiketa lanetarako, tituluarekin, astean zehar eta asteburuetan lan egiteko prest. 633101852.
 - Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Esperientzia eta ordutegi zabalarekin. 691675846.
 - Emakumea eskaintzen da nagusia zaindu edota garbiketa lanetarako. Esperientzia eta ordutegi zabalarekin. 691 67 58 46.
 - Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko, garbiketarako edo sukaldari laguntzaile bezala aritzeko. Esperientziaduna. 614053038.
 - Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko, garbiketarako edo sukaldari laguntzaile bezala aritzeko. Esperientziaduna. 631077623.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edota ostalaritzan lan egiteko. 602040399.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan, interna bezala. 643584198.
 - Mutila eskaintzen da asteburuetan zerbitzari moduan edo denda batean lan egiteko. 652544839.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tituluarekin, baita garbiketa lanak egiteko ere. 602051567.

- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, interna, externa edota asteburuetan. 642044618.
- Gizona eskaintzen da banaketa-lanak egiteko eta beste edozein motatako lanetarako. 602824238.
- Eibarren bizi den emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. 641910253. Victoria.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota haurrak zaintzeko, baita garbiketa lanetarako ere. 633 84 07 08,
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko edo partikularrek emateko. Magisteritza ikasketak. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, edota umeak edo nagusiak zaintzeko, orduka, asteburuetan edota interna. 614950669.
- Emakumea eskaintzen da etxe-lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko, astelehenetik ostiralera, 13.00etatik aurrera. 620757528.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxe, zein ospitaletan, edota garbiketa lanetarako. Soziosanitario ziurtagiriarekin. Edozein ordu eta egunetan. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Soziosanitario ziurtagiriarekin. Edozein ordu eta egunetan. 631593925.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 605139585.
- Emakumea eskaintzen da arlo soziosanitarioan lan egiteko. Tituluarekin. Interna edo externa moduan, baita asteburuetan ere. 642578943.
- Gizona eskaintzen da zaintza

- lanak egiteko Mendaroko ospitalean, egunez eta gauez. 641844485.
 - Emakumea eskaintzen da goizez etxeak garbitzeko eta pertsonak zaintzeko. 641837075.
 - Gizona eskaintzen da era askotako lana egiteko: zaintza lana, sukaldaritza, eraikuntza... 642383166.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxebizitzetan edota ospitaletan.. Tituluarekin. 631425866.
- 4.2. Langile bila**
- Pertsona nagusiaren zaintzarako emakumezkoa behar da. Interna moduan lan egiteko eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 606671290.
 - Estetizista eta fisioterapeuta behar da Eibarko ileapaindegir baterako. Lan giro bikaina. 943208125,
- 5. IRAKASKUNTZA**
- 5.2. Eskaintzak**
- Pintura klaseak ume edota helduentzat. Umeak; 4 urtetik aurrera, helduak; edozein adinetakoak. Informazio gehiago www.maitearriaga.com. 668 51 68 93
 - DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
 - Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
 - DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

OSASUN GIDA

MEDIKUNTZA ESTETIKOA



abontza
clínica estética

MEDIKUNTZA ESTETIKOA
- Dermatología estética
- Auspegu gisletak
- Botox
KIRURGIA ESTETIKOA
- Botoxak eta disipol
- Liposukzioak
- Kirurgia Intima

Egiguren, 6 - Behea 943 20 60 44
www.clinica-abontza.com

DR. ANE VESGA
CLÍNICA MEDICINA
ESTÉTICA

Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatuak

Arragueta 2bis B, Entreplanta A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



**RS Medikuntza
Estetika**

Maria Rosmina Soliz
Salvatierra DOKTORA

CLÍNICA DENTAL Y
MEDICINA ESTÉTICA RS 943 90 30 36 / SAN JUAN, 7

OKULISTAK



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klínika

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.E. 234/13

Plaza Barrio 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

PODOLOGOAK



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (125 Kolegiatu zbkia.)
Rosario Rodríguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidor
Lopez
Etcheberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PSIKOLOGOAK



GONZALEZ DE MENDIBIL
PSIKOLOGIA | PSIKOTERAPIA

Haur, nerabe eta helduenganako
arreta psikologikoa

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
T.Etxeberria 5, 1-C | 623 45 31 95

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GONZALEZ ETA ARRATZALDEZ

Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

TERAPIA NATURALAK



DEVI OM

YOGA ETA
AYURVEDA ZENTROA

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapiak naturalak

641 512 059
TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)

AURREMATRIKULAK

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORRREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

Otsailaren
2tik 13ra



URKIZU

943 89 91 47



SAN ANDRES

943 20 79 95



J.A.MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87



ARRATEKO ANDRA MARI

943 20 72 35



AMAÑA

688 68 72 39

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

AURREMATRIKULA Otsailaren 2tik 13ra

Kalitatezko Hezkuntza

Gure hezkuntza, gure etorkizuna.
Hemen, orain, zurekin.

www.euskal.leku/hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



EIBAR BHI
JARDINETA, 3 B
DBH 3,4 + BATXILERGOAK + ZIG

943 89 92 62
WWW.EIBARBHI.EUS



EIBAR BHI
ISASI, 37
DBH 1,2 + GAUTENAKO GELA OROKORRA

943 89 92 62
WWW.EIBARBHI.EUS